

ERABAKIA, 2015eko UZTAILAREN 6koa, EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO GERENTEARENA, HORREN BIDEZ, ODONTOLOGIA KLINIKARAKO "BULEGOKO BURUA" LANPOSTUA ALDI BATEZ ETA ZERBITZU EGINKIZUNETAN BETETZEKO DEIALDIA, 2015eko EKAINAREN 3koa, EBATZI DA.

GERTAKARIAK

Lehenengoa.- Euskal Herriko Unibertsitateko Gerentearen 2015eko ekainaren 3ko erabakiaren bidez deialdia argitaratu zen.

Bigarrena.- 2015eko ekainaren 29ko erabakiaren bidez, aipatutako deialdian onartutako lehiakideen behin betiko zerrenda argitaratu zen.

Hirugarrena.- Gerentzia honek deialdi honetan onartutako izangaiek adierazi eta egiaztatu dituzten merezimenduak baloratzeari ekin dio.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.- Honako hauek dira aplikagarri:

- Azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legea (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatua).
- Euskal Herriko Unibertsitateko langileen lan-baldintzak arautzeko akordioa (1996ko urriaren 23ko erabakia, 1996ko azaroaren 12ko EHAAn argitaratua).
- Gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko, eta eskumenak eskuordetzeko den 2013ko urtarrilaren 30eko erabakia, UPV/EHUko errektorearena (2013ko otsailaren 13ko EHAA)
- Euskal Herriko Unibertsitateko administrazio eta zerbitzuetako funtzionarioentzako zerbitzu betekizunak esleitzeko prozedura haztatua ezartzeko AZP Funtzionarioen Plangintza Batzordeak 2014ko uztailearen 1ean hartutako akordioa. Akordioa hau Gobernu Kontseiluak 2014ko uztailearen 10eko erabakiaren bidez berretsi zuen. (2014ko abuztuko 27ko EHAAn).
- Deialdia egiteko UPV/EHUko gerentearen 2015eko ekainaren 3ko erabakia eta horrekin bat datorren gainerako araudi aplikagarri orokorra.

Bigarrena.- Gerentzia honek eskumena du erabaki hau emateko; izan ere, gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu-arloak zehazteko eta eskumenen eskuordetzeko dena hartutako 2013ko urtarrilaren 30eko errektorearen erabakiaren bidez (2013ko otsailaren 13ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian), eskuordetu zaio horretarako eskumena.

Hirugarrena: Deialdiko lanpostua zerbitzu-betekizunen bidez hornitzeko

prozedura Euskal Herriko Unibertsitateko administrazio eta zerbitzuetako pertsonala funtzionarioentzako zerbitzu betekizunak esleitzeko prozedura haztatua ezartzeko AZP Funtzionarien Plangintza Batzordeak 2014ko uztailaren 1ean hartutako akordioa izango da. Akordioa hau Gobernu Kontseiluak 2014ko uztailaren 10eko erabakiaren bidez berretsi zuen. (2014ko abuztuko 27ko EHAA).

Laugarrena.- Aipatutako prozedurak ezartzen du hautatua izango dela merezimenduak baloratzeko zehaztutako baremazioaren arabera puntu gehien lortzen dituen izangaia eta, betiere, laugarren artikuluan adierazitako hurrenkerari jarraituko zaio hautaketa egiterakoan. Hautatutako pertsona adierazitako epean hasiko da zerbitzu betekizunen xede den lanpostuan edo eginkizunetan.

Horregatik guztiagatik, eman zaizkion eskumenak erabiliz, honako hau

ERABAKI DU:

Lehenengoa.- ODONTOLOGIA KLINIKARako "Bulegoko burua" lanpostua zerbitzu eginkizunetan aldi baterako esleitzea, hautatutako funtzionarioari, erabaki honetako I. eranskinean jasota dauden baldintzetan.

Bigarrena.- Esleipena 2015eko uztailaren 13ko ondorio-dataz egitea. Esleipen hori indarrean egongo da 2014ko uztailaren 1eko erabakiaren 9. artikuluan adierazitakoaren arabera.

Hirugarrena.- Erabaki hau eta dagozkion eranskinak argitaratzea UPV/EHUren webgunean.

Laugarrena.- Erabaki hau jakinaraztea interesdunari, Medikuntza eta Odontologia Fakultateko Administrazioarekiko, eta nomenen atalari. Har beza kontuan AZPren atalak.

Bosgarrena.- Erabaki honek administrazio-bidea agortzen du eta honen kontra aukerako berraztertze errekurtsoa jar dakiogere gerentzia honi, hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da administrazioarekiko auzietarako epaitegietan bi hilabeteko epean. Epe horiek erabakia lehen adierazitako moduan argitaratu eta eta hurrengo egunetik hasiko dira kontatzen.

Leioan, 2015eko uztailaren 6an.

Errektorearen eskumenak eskuordetuta: 2013ko urtarrilaren 30eko erabakia (2013ko otsailaren 13ko EHAA).

GERENTEA

Sinatua: Miren Lorea Bilbao Artech



I. ERANSKINA

Esleipenduna: MARIA JOSE OJEMBARRENA EGURROLA

Ianpostua: Bulegoko Burua

Lanaldia: Arautua

Erref.: F 932

Zenbatgarrena: 45

Taldea: C/D

Eskala edo kidegoa: 19

Hizkuntza eskakizuna: 2;2014/01/31

Langunea: ODONTOLOGIA KLINIKA

Campusa: BIZKAIA

Ondorioetarako data: 2015eko uztailaren 13a

II. ERANSKINA

PUNTUAZIOEN ZERRENDA - ZERBITZU EGINKIZUNA - 15/06/3 DEIALDIA

1346	F 932	Bulegoko Burua	Hor. 45	HE 2.14/01	ODONTOLOGIA KLINIKA														
------	-------	----------------	---------	------------	---------------------	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

ADJ	DNI	DEITURAK, Izena	ORD.	PUNT. GUZT.	ANTZIN.		EMANDAKO SERBITZUA GUZT.	Puntuak		Puntuak		Puntuak		EHU ZERB.		Puntuak		Puntuak		Puntuak		BESTE ADM.		GRADUA		TITUL.	HIZK.	EUSKARA		ELKAR.
					Urteak	Punt.		Hil.	Puntuak	Hil.	Puntuak	Hil.	Puntuak	Hil.	Puntuak	Hil.	Puntuak	Hil.	Puntuak	Hil.	Puntuak	Hil.	Puntuak	Hil.	Puntuak	Hil.	Puntuak	C	◁	Punt.

a) Deitutako lanpostuaren talde eta eskala berako karreradun funtzionarioak.

Adj	16039677Y	OJEMBARRENA EGURROLA, MARIA JOSE		35,3000	24	10,8	18,00	180	18,00	18	1,80			198	18,00										18	-1	3,5	3,00		2	0		
	14960282	SAENZ PLAZA, GERMAN		32,2000	26	11,7	18,00	180	18,00	8	0,80			188	18,00	6	0,60			9	0,90	15	1,50	16	-3	0,5	2,00		2	0			
	30598253	AGUIRREZABALA PETRALANDA, JOSU JON		31,8000	26	11,7	15,10	101	10,10			50	5,00	151	15,10																		
	05377463V	LOPEZ ITURRIAGA, MARIA BEGOÑA		30,5000	25	11,25	18,00	138	13,80	100	10,00			238	18,00										16	-3	0,5	0,75		2	0		
	30627183	ESKAURIAZA GOROZIKA, ITZIAR		29,6000	23	10,35	18,00	117	11,70	62	6,20			179	17,90	70	7,00	6	0,60					76	7,00	16	-3	0,5	0,75		2	0	
	11928887	MOGOLLON PLATA, ANTONIO JOSE		29,1500	22	9,9	18,00	161	16,10	100	10,00			261	18,00										16	-3	0,5	0,75		2	0		
	22718002M	GARCIA CEBRIAN, MARIA CONCEPCIÓN		28,4500	16	7,2	18,00	151	15,10	6	0,60			157	15,70			39	3,90	2	0,20	41	4,10	16	-3	0,5	2,50	0,25	2	0			
	16041179J	IDIRI GOIRIGOLZARRI, MARIA BEGOÑA		27,8000	19	8,55	18,00	163	16,30	5	0,50			168	16,80	68	6,80							68	6,80	16	-3	0,5	0,75		3	0	

c) Deitutako lanpostuaren beheagoko hurrengo talde eta eskalako karreradun funtzionarioak.

	16037835	AMEZAGA OTAOLA, XABIER PELI		27,1000	18	8,1	16,50	91	9,10			50	5,00	141	14,10			4	0,40	20	2,00	24	2,40	13	-3	0,5	2,00		3	0	
--	----------	-----------------------------	--	---------	----	-----	-------	----	------	--	--	----	------	-----	-------	--	--	---	------	----	------	----	------	----	----	-----	------	--	---	---	--

d) Behin behineko funtzionarioak.

	14606204P	VALLE USUBIAGA, EVA		19,8500	11	4,95	13,90	95	9,50	6	0,60			101	10,10	25	2,50	13	1,30					38	3,80			1,00		3	0	
	30670588	ABAD GREGORIO, LUIS MARIANO		17,8500	11	4,95	11,40	44	4,40					44	4,40	70	7,00	10	1,00					80	7,00			1,50		3	0	
	30615796	ARTO LUARCA, MARIA MERCEDES		16,7000	12	5,4	8,30	54	5,40					54	5,40	5	0,50	4	0,40	20	2,00	29	2,90					3,00		2	0	
	78874626J	SORIA VILLANUEVA, ITZIAR		16,5000	8	3,6	10,40	90	9,00	12	1,20			102	10,20	2	0,20							2	0,20			2,00	0,50	3	0	

